

Ororen gaineretik, euskaltzalea

RESURRECCION MARIA AZKUE ABERASTURI 1864ko abuztuaren 5ean jaio zen Lekeition. Aita Eusebio Mariak eta ama Maria del Carmenek hurrengo egunean bataiatu zuten seme jaio berria.

Humanitate ikasketak 1873an hasi zituen Ignacio Goikoetxea apaizarekin, eta hiru urtera Lekeitiko Itsas Eskolara probak gainditu zituen. Osaba eta aita ponteko Ramon Aberasturirekin ontziz egindako bidaia batean hila ekaitz handia egin zuten, ezen Azkue gazteari itsas afizio guztiak amaitu baitzitzaizkion. Bere bokazioa itsasoa-rena ez bazen ere, ikasketak amaitu egin zituen 1878an. Ordurako aita hilik zuenez, anaia Alfonsok diruz lagunduta Bilbon ikasketak egiten jarraitzeko bidea izan zuen. Arteetako Batxiler titulua eskuratu zuen 1881ean. Bilbotik Gasteizko seminariara joan zen, eta han Filosofia eta Teologia ikasketak egin zituen. 1885ean, berriz, Salamancan egin zituen ikasketak gehiago. 1888ko uztailean apaiztu egin zen eta irailan eman zuen lehen meza bere jaioterrian.

Ordurako, Bizkaiko Foru Aldundidak Ikasketa Ertainetako Instituturako Euskara Katedrarako oposizio deialdia egin zuen. Azkue kargu horretarako aurkeztu zen, Sabino Arana, Miguel Unamuno, Luis Iza eta Pedro Alberdirekin batera. Azkuek *Grankanton Arrantzaleak* legenda eta euskal gramatikari buruzko zati batzuk aurkeztu zituen oposizio lehiaketara. Epaimahaiak, gehiengo handiz, Azkueren alde bozkatu zuen. Urte horretan bertan hartu zuen katedra Azkuek, eta 1903-04 ikasturtea arte iraun zuen bertan.

Katedradun zela, euskara hutsezko eskola bat sortzeko gogoak izan zituen, eta horretarako Ikastetxe eskola sortu zuen 1896an. Hiru urtez egon zen Ikastetxeren arduradun gisa.

Euskara, gramatika, folklorea eta musika gaztetatik interesatu zitzaizkion Azkueri, eta horietan sakontzeko lanetan jardun zuen bizitza osoan. Diotenez, bere diru guztia liburuak erosteko eta kanpora bidaiatzeko xahutzen zuen Azkuek. Espainia, Frantzia, Alemania eta Belgikara joan ohi zen euskarazko dokumentuen bila eta musika ikastaroak hartzera, Azkueren beste bokazio nagusia musika baitzen.

Abertzalea zen, eta EAJren barruan ere ibili zen, baina afiliatu eta sei hilabetera alderdi-rik irten zen edo bota egin zuten

—ez dago oso argi—. Azkuek Lekeition estreinatu nahi zuen musika obra bat estreinatzeko alderdikideek jarri zituzten eragozpenak zirela medio.

Horrek ez zion eragotzi, ordea, euskararen gainean ikerketak sakontzeko egitasmoak burutzea. Mende bate-rik besterako itzuli horretan euskararentzat akademia bat sortzeko izan ziren saioekin bat eginez, Azkue 1909. urtetik aurrera buru-belarri sartu zen akademia hori sortu ahal izateko helburuan. Euskara-Gaztelania hiztegia egingo zuen eta euskararen ortografia arazoak konponduko zituen akademia nahi zuen Azkuek. Baina Bizkaiko Foru Aldundia 1918. urtera arte ez zen gainontzeko foru aldundiekin harremanetan jarri egitasmo hori burutzeko.



Euskaltzaindiko lehendakari

1918an Oñatin egin zen Eusko Ikaskuntzako lehen biltzarrean estatutu batzuk onartu ziren, eta Hegoaldeko lau diputazioek Euskaltzaindia finantzatzeko konpromezua hartu zuten. Lehenbiziko lau akademikoak hautatu zituzten: Azkue, Arturo Kanpion, Luis Eleizalde eta Julio Urkixo; bi bizkaitar, gipuzkoar bat eta nafar bat. Azkue lehendakari izendatu zuten, eta kargu horri eutsi zion hil zen arte.

Ordutik aurrera, hizkuntzaren ikerketa sakona egiten eman zituen urteak Azkuek, eta Europara joaten ibili zen euskarari buruz handik eta hemendik gorderik zeuden agiriak bildu eta aztertze-ko asmoz. Euskaltzaindiko lehendakari izateaz gain, 1905ean Pa-

risko Linguistika Elkarteko kide izendatu zuten, 1922an Errusiako Zientzi Akademia-k kide, eta 1928an Espainia-ko Real Academian sartu zen.

Gizon handi eta pisuduna —bere hankek ehun kilotik gora jasan behar zuten—, itxura ondo zaintzea atsegin zitzaion, eta jantziak enkarguz ekartzen zituen Alemaniatik. 35 urte zituela herri hartara egin zuen bidaia batetik aurrera sudur-hautsa kontsumitzen hasi zen, eta hori ere enkarguz ekarri behar izaten zuen. Puruak erretzen, berriz, 80 urte beteak zituela hasi omen zen.

1951ko gau batean, Euskaltzaindiko egoitzatik irten eta etxerat zihoala ibaira erori zen. Lagun batek atera zuen ibaitik, ustez inolako kalte larririk gabe. Hori zela eta ez zioten sabela garbitu, nahiz eta ordurako Nerbioi ibaia kutsatua egon. Baina gauzak okerrera joan ziren. Enteritisak jota hil zen azaroaren 9ko arratsaldeko sei eta erdietan.

Azkuek hainbat arazo izan zituen Sabino Aranarekin eta haren eskolaren jarraitzaileekin. Beti egon zen aurrez aurre aranistekin, hauek hizkuntzan egin nahi zituzten erreformak zirela eta. Erreforma horien aurrean, benetako euskararen ezagutzaren gainean hizkuntzaren oinarriak sendotzeko premia ikusi zuen Azkuek. Aranismoaren dotrina ofizial horren aurka borrokan aritzearen ondorioz kritikak jaso zituen, eta irainak ere bai. Denborak, ordea, arrazoiak eman zion Lekeitioko semeari.

• Koldo Aldabe •

Lan mardula

Azkuek idatzita utzita-ko obra mardula da. Hainbat alor jorratu zituen, eta obra horietako batzuk geroko euskal idazle eta gramatikararien oinarriak izan dira.

♦ **Diccionario Vasco-español-francés:** 1905. urtean argitaratu zuen, bi liburukitan. Herriarren ahotik eta literatura zaharretik bildutako hitzak dira. Azkuek berak aitortu zuenez, hamabost urte behar izan zituen lana amaitzeko.

♦ **Cancionero popular vasco:** 1918an argitaratu zuen. Hamabi liburukiz osatutako lana da. Euskal Herriko herri kanta eta doinuak biltzen ditu; lan hori funtsezkoa da euskal musika eta herri poesia ezagutzeko.

♦ **Morfología vasca:** 1923an argitaratu zuen. Euskal atzizkiak eta gramatika kategoriak aztertzen dira liburuan.

♦ **Euskalerriaren Yakin-tza:** folklore bilduma zabal hau 1935-47 bitartean argitaratu zen, lau liburukitan.

♦ **Euskal Izkindia** (1881)

♦ **El Euskara o el Bas-kuence en 120 lecciones** (1897)

♦ **Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular** (1917)

♦ **Diccionario de bolsillo vasco-español** (1918)

♦ **Gipuzkera osatua** (1935)

Literatura

♦ **Bein da betiko** (1890)

♦ **Txirristadak** (1898)

♦ **Ardi galdua** (1918)

♦ **Laminak Euskal Herrian** (1927)

Musika:

♦ **Ortzuri eta Urlo ope-rak; Vizcaytik Bizaia-ra, Sasi-eskola, Aita-ren bildur, Gainzaba-le'ko eiztaria, Eguzkia nora, Colonia inglesa, Pasa de Chimbos...**